
# MUSIKA BIZI EZAN/EZAK!

## ARTISTAREN EZAGUTZEKO IKERKETA FASEA


ØDEIREN AURKEZPEN INTERAKTIBOA




MUSIKA KRITIKA



MALETA IBILTARIA



TESTUAN MURGILTZEA





# ØDEIREN AURKEZPEN INTERAKTIBOA

## Maila:

## Saio kopuruak:

- Ordu bateko bi saio

## Gaitasunak:

Frantziako Hezkuntza Nazionaleko buletin ofiziala / Bigarreneko atzerritar eta eskualdeko hizkuntzen programa:
*Axe 5: Créer et recréer*

- Écouter, visionner et comprendre :

- Peut comprendre une gamme étendue de matériel enregistré ou radiodiffusé, y compris en langue non standard et identifier des détails fins incluant l'implicite des états d'esprit et des relations entre interlocuteurs.
- Peut comprendre les nuances et les sous-entendus dans la plupart des films, des pièces de théâtre et des programmes télévisés.

- Lire et comprendre :

- Peut parcourir rapidement plusieurs textes en parallèle (articles, rapports, sites internet, ouvrages, etc.) et en relever les points pertinents. Peut reconnaître si un texte donne de l'information factuelle ou bien s'il cherche à convaincre les lecteurs. Peut reconnaître la structuration d'un texte.

- Interagir à l'oral :

- Peut exposer ses idées et ses opinions et argumenter sur des sujets complexes familiers, identifier avec précision les arguments d'autrui et y réagir de façon convaincante en langue standard.

- Faciliter la coopération:

- Peut mettre en évidence le problème principal à résoudre dans une tâche complexe. Peut agir comme rapporteur du groupe, noter les idées et les décisions, les discuter avec le groupe et faire ensuite en plénière un résumé des points de vue exprimés.

- Mener un travail collectif:

- Peut organiser et gérer un travail collectif de façon efficace, inciter les membres d'un groupe à décrire et développer leurs idées et recentrer habilement l'attention des participants en sollicitant des propositions.

## Oinarrizko jakintzak:

Euskal Autonomia Erkidegoko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculuma / Laugarren maila:

- A - HIZKUNTZAK ETE BEREN HIZTUNAK:

- Barietate dialektalen berezko ezaugarrien (fonikoak, gramatikalak, lexikoak eta semantikoak) eta soziolektoen eta erregistroen arteko aldeak.

- B - KOMUNIKAZIOA:

2. Ulermena:

- Ahozko eta irakurriaren ulermenerako estrategiak. Testuaren zentzu orokorra. Ideia nagusiak eta sekundarioak eta zatien arteko erlazioa; garrantzizko informazioaren aukeraketa eta atxikipena. Informazioa berreskuratzea eta ondorioztatzea. Igorlearen asmoa. Testuetako lexikoa.

4. Elkarreragina:

- Elkarrizketa-kooperazioa eta hizkuntza-kortesia. Hitza hartzeko txandak. Elkarreraginen hasiera, mantentzea eta amaiera. Entzute aktiboa, asertibitatea eta gatazkak elkarrizketa bidez kudeatzeko baliabideak, genero-ikuspegitik: esanahia argitzeko, emozioak islatzeko, parafraseatzeko eta enuntziatuak formulatzeko jarraibideak.

7. Lanaren antolaketa eta ikaskuntzari buruzko hausnarketa:

- Banakako eta taldeko lana testuinguru presentzialetan eta digitaletan antolatzeko estrategiak, genero-ikuspegiarekin.
- Estrategia kooperatibo errazak eta konplexuak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartzeko estrategiak.

## Euskarriak eta iturriak:

> ØDElren aurkezpen interaktiboa: 25 galdera eta zuzenketak
> Aurkezpen interaktiboko elkarrizketak:
- BTN2x11 - Odei Barroso - Erabakiak hartzea - Argia
- Iparraldearen orena: Odei Barrosoren disko berriaren aurkezpena - EITB
- Musika Zunzenean TB# 194 ØDEI - Hamaika telebista
- ØDElren webgunea (elkarrizketak+ argazkiak) https://odei.alkimia.eus/

> Elkarrizketa idatzia:
- «Batzuetan zaila egin zait nire izaera eta rap kantariaren irudia ezkontzen», 2025/03/1a, Joanes Etxebarria - Ipar Euskal Herriko Hitza.

## Antolaketa eta materiala:

> Bakarka egiteko:
- Informatika gela
- Kaskoak
- Notak hartzeko materiala

> Taldean egiteko - Joko moduan:
- Bideo-proiektagailua
- Bozgoragailuak
- Notak hartzeko materiala
- Erantzunak biltzeko materiala: fitxak, arbel txikiak...

# ØDEIREN AURKEZPEN INTERAKTIBOA

## Urrats ezberdinak:

JOKO MODUAN: taldeak osatuz eta aurkezpena proiektatuz.
BAKARKA: autonomian ordenagailu batekin.

- 1. saioa:

Lehen aukera: Joko moduan - Gelan

1) Ikasleek (bakarka): elkarrizketak entzutea eta notak hartzea.
2) Irakasleak: taldeak osatzea. Rola bat ematea bakoitzari: Hitz eramailea (denen aitzinean mintzatuko da edota azken hitza ukanen du) / Nota hartzailea (taldearen erantzunen eta beren zuzenketaren aztarna atxikiko du) / Dinamizatzailea (hitza banatuko du taldekideen artean eta segurtatuko du denek parte hartzen dutela).
3) Ikasleek (taldean): galdera bakoitzaren erantzuna ahoz edo idatziz proposatzea.
Irakasleak: aurkezpen interaktiboan erantzunen proposamenak sartzea, komentatzea, puntuen banatzea eta apuntatzea.

Bigarren aukera: Autonomian - etxetik edo info gelan

1) Ikasleek bakarka: elkarrizketa zati bat etxetik lantzea aurkezpen interaktiboari esker (gehienetan 4 galdera badira zatika).
2) Bildu dituzten informazioen bilduma aurkeztea talde osoari.

- 2. saioa:

1) Aurkezpen interaktiboaren segida (lehen aukera hautatuko bazenute)
2) Ikasleek bakarka edo taldean: Ahozko edo idatzizko bilduma ikasi dutenari buruz egitea. (lehen aukera hautatuko bazenute)
3) Horma-irudi bat informazio nagusiekin osatzea: testuak, gako-hitzak, aipuak (elkarrizketakoenak) eta irudiak (ØDEIren webgunekoak, Badok wegunekoak...)



## Irizpide proposamenak:

Ahoz:
- Deskubritu edo ikasi dudana laburki aipatzeko gai naiz.

Idatziz:
- Ikasi dudanaren bilduma egiteko gai naiz (mapa mentala, horma-irudia edo beste)

# ØDEIREN AURKEZPEN INTERAKTIBOA



https://view.genially.com/6ace2143fda6cf4605f71c4d